

ASTEASUKO SANPEDROAK 2022



asteasuko udala



Diseinua:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
San Esteban auzoa, 20 - 20400
TOLOSA • Tel.: 943 65 56 95
tkt@ataria.eus • Ataria.eus • 107.6 fm

AGURRA

Urte guztia zain egun hauen ospakizunerako, eta festak azkar pasatzen dira, baina urtea ere konturatu orduko joan da eta hemen gaude berriro ere San Pedro jaietarako pronto. Azken bi urteetan modu xumean ospatu genituen, egoerak hala behartuta, baina aurtengoak gogoz hartuko ditugu.

Jakitun naiz modu berean, azken bi urteak egun goibel asko utzi dizkigula gure egunerokoan, eta tarteka ilusio pixka bat ere behar dugula, festa eta algara alegia, oreka bilatu eta aurrera egiteko, indarberritzeko. Hori badute behintzat San Pedro jaiek, alaitasunaren aldea indartzen laguntzen baitute, eta egun hauetan arazoak albora uzteko lagungarri dira.

Askotan bakoitzaren egoeraren gordintasunak alde txarrari gehiago begiratzea eramaten bagaitu ere, ziur naiz barrura begiratu eta ospakizunerako tartea eta modua aurkituko duzuela, baita arrazoi ezberdinak tarteko, etxean hutsune handiegiak sumatzen dituzuenok ere. Hauei besarkada goxo bat.

Herritar bakoitzak bere erara antolatzen du jaia, elkarri traba egin gabe aritzea izaten da kontua, askotan denon gustukoa ez bada ere. Denontzako tokia egin eta gustagarria den hura egitarauan aurkitzea da Jai Batzordeak eta udalak festetarako egiten duten esfortzuaren helburu nagusia, jakitun horrek hainbat lagun lanean jartzea esan nahi duela, gainontzekook ospakizunean murgil gaitezen. Hauei eskerrak, bihotzez.

Kalean bat egin eta elkarrekin goatzeko modua izatea desio dizuet, urteko nekeak eta buruhaustek albora utzi eta ospakizunetan murgilduz.

Goza ditzagula egun hauek, elkarrenganako errespetuan.



GORA SAN PEDRO JAIK ETA GORA ASTEASU!
PILAR LEGARRA - ALKATE ANDREA

SALUDO

Esperamos todo un largo año la llegada de estos días, y sin que nos demos cuenta ya estamos a las puertas de las fiestas de San Pedro. Los dos últimos años, dadas las circunstancias, no las pudimos celebrar como de costumbre, pero este año las recibiremos con más ilusión y ganas.

Soy consciente de que estos dos últimos años nos han sumido muchas veces en la tristeza y que necesitamos un poco de ilusión, un poco de jolgorio, para seguir adelante, y eso es lo que nos proporcionan las fiestas de San Pedro, alegría y poder dejar de lado los problemas al menos durante unos días.

Aunque a menudo la crudeza de la situación personal nos lleva a mirar más el lado negativo, estoy segura de que en nuestro interior podremos encontrar también un hueco para la celebración, incluso aquellos-as que habéis perdido a algún ser querido. A todos-as mi abrazo más sincero.

Cada ciudadano-a vive la fiesta a su manera, pero lo importante es disfrutar sin molestar a nadie. Buscar un hueco para todos-as y encontrarlo en este programa es el principal objetivo del esfuerzo que la Comisión de Fiestas y el Ayuntamiento hacen para las fiestas, conscientes de que también significa el trabajo de muchas personas para que los demás podamos disfrutar. Mi agradecimiento a todos y todas por su esfuerzo.

Os deseo que disfrutéis de la calle, en buena armonía, dejando a un lado las fatigas y los quebraderos de cabeza del día a día, participando en los diversos actos organizados y sin olvidar, nunca, el respeto mutuo que nos debemos.

GORA SAN PEDRO JAIK ETA GORA ASTEASU!
PILAR LEGARRA - ALCALDESA



Dantza-sokak bizirik

Garai batean erromeria eta dantzaldi irekietan ohikoak ziren dantza tradizionalek oraindik bizirik diraute gure inguruan. Euskal Herriko txoko asko, ordea, garai bateko esentzia hori galtzera iritsi dira. Horren adibide da Asteasu. Bere kulturaren, tradizioaren eta jaien parte zen zati bat urte luzez desagertu zen: *dantza-soka*. Herriko helduenek gogoan izan dute geroztik, eta azkenean, duela hamalau urteko hutsunea betetzea lortu zuten Mikel Maiz eta Ion Olano herritarrek.

Berreskuratze prozesua duela 25 urte inguru hasi zen, Iturri Zaharretik izeneko proiektua martxan jarri zenean. Jende heldua elkarriketatzen hasi ziren eta proiektu horretan ari zen lanean Maiz. "Gai desberdinen inguruko elkarriketak egiten genituen: gerra, garai bateko eskola, baserriko bizitza eta festaren inguruan, besteak beste. Gaztaroaren inguruko galderak egiten nituenean atentzioa eman zidan batek baino gehiagok San Pedro jaiak ekartzen zituela gogora; eta baita *ttunttuna* ere, izan ere garai batean izugarria zen herritarrentzat festetan danborra eta txistua udaletxeko arkupeetan jarri eta gaueko hamarrak arte jotzen egotea. Festetako politena, dudarik gabe, *dantza-soka* zela aipatzen zuten, hala ere", kontatu du Maizek.

Ordurako dantza galduta zegoen, eta "bi aldiz pentsatu gabe" berreskuratzea erabaki zuten: "Asteasuko *dantza-soka* herritar batek baino gehiagok gogoratzen zuela ikusita, lonekin (Olano) bildu nintzen. Beste zortzi lagun inguru elkartu ginen, eta Enara Dantza Taldeko irakasle izan zen Anjeles Uzkudunekin harremanetan jarri ginen. Berak eman zizkigun datu argienak eta Asteasuko *dantza-soka*-k zuen berezitasunaren berri eman zigun, bi arku eduki beharrean bakarra zuela. Hori guztia jakin ondoren berehala jarri ginen lanean".



Maialen Otegi, Izaro Garmendia, Mikel Maiz eta Ion Olano asteasuarrak 'dantza-soka' -n parte hartuko dute.

Emakumeak ere dantzan

2008az geroztik, ohikoa denez, San Pedro egunean Elizmendin elkartzen dira asteasuarrak, *dantza-soka* ikusi eta hamaiketako dastatzeko. Ikusleen artean dauden emakumeak dantzara gonbidatzea eskatzen du *dantza-soka*-ren protokoloak, eta tradizioari eutsiz horrela egin dute asteasuarrak. Izaro Garmendia herritarrek gogora ekarri du herriko gazte asko txiki-txikitatik hasi direla dantzan, *dantza-soka* tradizionalari jarraipena emanez. Baina, hainbat urte igaro ostean Asteasura aldaketak azkar iritsi zirela gaineratu du Olanok: "Hasiera batean gizonezkoek soilik parte hartzen genuen eta emakumeak pixkana naturaltasunez eta inongo konplexurik



gabe hasi ziren txertatzen. Hori da dantza bizirik mantentzea, tradizioak aldatzea. Beraz, bizirik mantentzeko egokitu egin behar da”, azaldu du Olanok.

Hain zuzen, 2018an izan zen emakumeak parte hartu zuten lehen urtea, eta egun horretako oroitzapen “polita” eta “berezia” du Garmendiak: “Herriko emakume gazte askok parte hartu genuen lehen urte horretan. Oso polita eta berezia izan zen, tradizioarekin jarraitzeaz gain gaurkotasunera egokitzen jakin genuelako eta gaur egun ere mantentzen dugu”. Pandemia tartean egon bada ere, Garmendiak urtero parte hartu du eta aurtengoan ere dantzan egitera animatu dela aipatu du.

Maialen Otegi herritarrek, berriz, bigarren aldia izango du aurtengoarekin. “Herriko gazteek txikitatik ikusi dugun ekitaldia izan da, eta orain parte hartzeko aukera edukita ez dugu bi aldiz pentsatu behar izan. Hala ere, uste dut, garai batean ez bezala, oraingoan gizonak baino emakumeak errazago animatzen garela dantzan egitera. Horregatik, gaur egun gizonak baino emakume gehiago ikusten dira”, esan du.

Denontzako egina

Generoa ez ezik, *dantza-soka*-n parte hartzeko adina ere ez da arazo. “Dantza denontzat da, eta nik uste horrek ere berezi egiten duela. Iruran esate baterako, ez dute *dantzari* esaten, umeak bezala *dantxari* baizik, eta ez luke horrela izan behar. Helduak ere dantzariak gara”, azpimarratu du Olanok. Kosta ahala kosta herriko hiru belaunaldiak dantzan jarraituko dutela argi utzi dute herritarrek, “hori baita herriaren osotasuna biltzen duena, lotura eta etorkizuna”.



Hortaz, belaunaldi ezberdinetako herritarrek Asteasuko San Pedro jaietan antolatuko duten *dantza-soka*-n parte hartzera animatu dituzte.



Ekainak 23 — osteguna

21:00

San Juan bezperako sua eta dantza

Ekainak 25 — larunbata

18:00

OINKARIREn eskutik,
herriko hurren dantza emanaldia.

Ekainak 27-28 —

Denon artean,
txosna herrikoia martxan jartzera!

Ekainak 28 — asteartea

18:00

Lagunarteko Herri Kirol Lehia

20:00

Txupinazoa

Joxe Angel Sarasolaren eskutik
eta sorginaren jaitsiera

Kalejira:

Asteasu eta Zizurkilgo erraldoi eta
buruhandiak herriko txistulariekin

21:00

Herri afaria

Ondoren

LASKOTXARANGArekin dantza!



Ekainak 29, asteazkena

SAN PEDRO EGUNA-

10:00

Diana

11:00

Meza nagusia

Ondoren

Dantza-soka eta hamaiketakoa

12:30

Pilota eskolako alebin eta
benjaminen finalak

18:00

Kalejira: Herriko trikitilariak, txistulariak eta koroa.

Asteasu eta Zizurkilgo erraldoi eta buruhandiak

21:30

Txintxon eta Mus txapelketa.

21:30-21:55 izen emateak (Bikotekide batek
gutxienez Asteasun erroldatuta egon behar du.)

22:30

Bakarrizketa: NEKATUTAK (Antton Telleria)



Ekainak 30, osteguna — — JUBILATUEN EGUNA —

10:00

Haurrentzat "8 froga, 8 buruhauste"
herriko gazteek antolatuta

11:00

Meza

Ondoren

Hamaiketakoa Aiztondo Elkartean

13:00

Herri kirolak.

Aizkolariak:

- Ugaitz Mugerza
- Julen Alberdi "Txikia"

Harrijasotzaileak:

- Lierni Ossa
- Lur Errekondo
- Mikel Lopetegi "Urre"
- Aimar Irigoien

14:30

Jubilatuen bazkaria.

- Bertsolariak: Telleria eta Lizaso
- Tritikitalariak: Izer eta Alabier

17:30

Gazte-olinpiadak kuadrillen artean plazan

18:00

Trikitixa eta pandero
eskolaren musika emanaldia

22:30

BERTSO SAIOA

Maialen Lujanbio, Haritz Mujika,
Jexux Mari Irazu eta Nerea Ibartzabal.
Gai-jartzailea: Amaia Agirre



Uztailak 1 — ostirala

— KUADRILLEN EGUNA—

10:00

Zirko tailerra haurrentzat
Lamiategin

11:30

Ur festa Lamiategin

13:00

Ikurrinaren aldeko ekitaldia

14:30

Kuadrillen arteko bazkaria

17:00

Poneyak eta zezen txikiak

18:30

DISTOPIAren

emanaldia

plazan

22:00

Zezen suzkoa

Ondoren

Kontzertua:

GABEZIN



Uztailak 2, larunbata -HAURREN EGUNA-

10:00

Herriko haurrentzako jolas eta lehiaketak:
Marrazkiak, Ipuina, xakea, krosa...

12:00-14:00

Puzgarriak

Ondoren

Haurren bazkaria eta dantza ikuskizuna

15:00-17:00

Puzgarriak

18:00

Tortilla txapelketa

18:30

Sagardo Dastaketa

Herriko elektrotzaranga

22:00

Kontzertua:

ANKER eta GOZATEGI

Uztailak 3, igandea -HAURREN MOZORRO EGUNA-

11:00

Herriko bertsolarien emanaldia

12:00

Tio Teronen semeak ikuskizuna

17:00

Pelota partidak:

Larrarte-Erasun/Garai-Agirre

Labaka-Urruzola/Urbieta-Aizpuru

19:00

Erromeria: ORKESTRINA BAND JAZPANA

21:00

Sorginaren igoera

Gazteak ere herria eraikiz



Garazi Jauregi Asteasuko Gaztelekuko arduraduna eta Beñat Garcia Mattin Gizarte Abenturako arduraduna aisialdian parte hartzen duten gazteekin.



Asier Baglietto Udal teknikaria eskolako haurrekin.

Nola bermatu herri txiki baten etorkizuna? Galdera horri tiraka lortu zuten korapiloa askatzea Asteasun. Izan ere, herriko erabakietan haur eta gazteen iritzia kontuan hartu nahi zituzten eta horretarako udaletik prozesu parte hartzailer bat abiatu zuten duela bi urte. Modu horretan sortu zen Soka ekimena; herriko haur eta gazteen artean parte hartzearen kultura sustatzeko egitasmoa, hain zuzen.

Asteasuko haur eta gazteekin harremana duten eragileek gidatu ohi dute prozesua, Asteasuko Udala, Pello Errota eskola, Guraso Elkarte, Gaztelekua, Mattin Gizarte Abentura, Harituz Bertsozale Elkarte eta Arremanitz Elkartea, hain zuzen. "Oinarri filosofiko bat hartzeko elkartu ginen eragile guztiak, eta bi urte hauetan antzeko lan bat egiten ibili gara; hau da, gure herrian nolako aisialdia izan nahiko genukeen amestu genuen eta parte hartzearekin lotutako gaien inguruan aritu ginen", kontatu du Garazi Jauregi Gaztelekuko arduradunak.

Tarte horretan hilabeteetan behin elkartu dira herriko talde eragileak, eta bertan jabetu dira proiektua teorikoki lantzeaz gain, praktikan ere jarri behar dela. "Mattin Gizarte Abenturako

arduraduna den Beñat Garcia eta biok iazko otsailean Asteasuko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gazteekin bilera bat egin genuen. Lehen fase horretan Asteasu izan genuen hizpide, eta gazteak gure herriaren inguruan hausnartzera animatu genituen", kontatu du Jauregik.

Prozesu parte hartzailer horretatik abiatuta hainbat hutsunez jabetu ziren eta guzti horiei forma emateko asmoz hainbat jarduera antolatu dituzte; jolasak, ginkana, ibilaldiak... Uda honetan udaleku parte hartzailer egingo dute ere. "Ikasturte osoan programa bat eskaini dugu bilerak egin, ekintzak antolatu eta beraiekin harremana mantentzeko asmoz", gehitu du.

Ikasle Batzordea eta Ikasle Asanblada

Pello Errota eskolan ere badute antzeko parte hartze programa bat, Ikasle Batzordea. "Gela bakoitzeko ordezkariak hilabeteetan behin biltzen dira eta gai bat lantzen dute. Ondoren, ordezkari bakoitzak bere gelakideei azaldu behar dizkie landu duten gaiaren nondik-norakoak", azaldu du Laia Zabala Ikasle Batzordeko ordezkariak.



Dinamika honek bi norabide dituela gehitu du Onintza Elduaien zuzendariak: "Aukera bat da irakasleok gaiak aukeratu, landu eta ikasleei proposatze; eta beste aukera da gaiak ikasleek proposatzea. Azken proposamena Ikasle Batzordetik etorri da, klaseak amaitu eta hurrengo egunean, ekainaren 21ean, Asteasuko igerilekura joango gara. Hori izan da oraingo proposamena".

Horrez gain, aurtengo San Pedro jaietako egitaraua ere antolatzen ari direla azaldu du Elduaienek: "Ikasle Batzordetik ikusi genuen gai asko ez zetozela bat eskola barneko jarduerekin; herriko festetako egitaraua, adibidez. Beraz, Ikasle Batzordea eskola orduetan biltzen den moduan, eskola orduetatik kanpo biltzen den Ikasle Asanblada parte hartze programa sortu dugu". Ekainaren 1ean izan zuten lehen hitzordua udal teknikari Asier Baglietto eta Guraso Elkarteko lehendakari Ainhoa Landaberearekin batera.

Pixkana bada ere, Soka ekimenari forma ematen ari direla adierazi du Elduaienek, "orain arte ez du egitura finkorik izan eta ikasturte amaierako asmoa da hori lortzea. Izan ere, eskolak programazio bat eskatzen du, eta momentuz Ikasle Batzordean ez dugu programazio jakin bat eta suertatzen diren gaiak lantzen ditugu. Lanketa honek ordea, forma ematea eskatzen du".

Soka izenaren jatorria

Ekimen honen izena prozesuaren baitan sortu da, eta bere jatorriaren nondik-norakoak azaldu ditu Zabalak: "Soka batzuetan korapilatu egiten da, baina elkarlanean lan eginda azkenean askatu egiten da. Dena ondo doan seinale da hori, eta horrek talde lana garrantzitsua dela esan nahi du".

Horren harira, eskolan dinamika bat egin zutela gogora ekarri



Onintza Elduaien Pello Errota eskolako zuzendaria eta Laia Zabala eta Xabier Urtaza Ikasle Batzordeko ordezkariak.

du Xabier Urtaza Ikasle Batzordeko ordezkariak: "Soka ekimena ikasle guztioi aurkeztu ziguten egunean eskolako patioan bildu eta jolas moduko bat egin genuen. Denak eskutik helduta korapilatu ginen, baina elkarlanaren bitartez azkenean askatzea lortu genuen".

Helduek ez ezik, herriko haur eta gazteek ere horrelako ekimen baten beharra zutela argi utzi dute bi ordezkariak. "Ekimena asko gustatu zaigu, herriko proiektuetan haurren iritzia ere aberatsa izan daitekeela erakusten duelako. Gainera, antolatzen ditugun jarduerak denen gustura egiten saiatzen gara; batzuetan gure iritzia aurrera aterako da eta beste batzuetan ez. Beraz beti dena ez dela posible ikasi dugu, eta horregatik irekita egon behar dugula".

Sanpedroak 2022

23 de junio, jueves

21:00 Hoguera y baile tradicional de la víspera de San Juan

25 de junio, sabado

18:00 Actuación de los niños y niñas de Asteasu con la colaboración de Oinkari.

27 y 28 de junio

Entre todos y todas pondremos en marcha la txosna popular

28 de junio, martes

18:00 Herri kirolak entre vecinas y vecinos del pueblo

20:00 Txupinazo a cargo Joxe Angel Sarasola y bajada de la bruja

Kalejira: Txistularis, cabezudos y gigantes

21:00 Cena Popular

A continuación Actuación de la txaranga LASKOTXARANGA



29 de junio, miercoles -San Pedro eguna-

10:00 Diana

11:00 Misa mayor

A continuación *Dantza-soka* y hamaiketako

12:30 Final de pelota:

benjamins y alevines.

18:00 Kalejira: trikitilaris del pueblo, txistularis, el coro, cabezudos...

21:30 Campeonato de MUS y CHINCHÓN

21:30-21:55 Inscripciones (Al menos uno de cada pareja debe estar empadronado en Asteasu.)

22:30 Monólogo: NEKATUTAK (Antton Telleria)



30 de junio, jueves

-Día de las/os Jubiladas/os-

10:00 "8 pruebas, 8 retos" para niños y niñas, organizada por los y las jóvenes.

11:00 Misa

A continuación se servirá un almuerzo en la sociedad Aiztondo.

13:00 Herri kirolak.

Aizkolaris:

- Ugaitz Mugerza
- Julen Alberdi "Txikia"

Harrijasotzailes:

- Lierni Ossa
- Lur Errekondo
- Mikel Lopetegi "Urre"
- Aimar Irigoien

14:30 Comida para los jubilados y las jubiladas.

Bertsolaris: Telleria eta Lizaso

Tritikitaris: Izer eta Alabier

17:30 Olimpiadas para jóvenes

18:00 Concierto de las y los alumnas/os de la escuela de trikitixa y pandero

22:30 Bertsolaris:

Maialen Lujanbio, Haritz Mujika, Jexux Mari Irazu eta Nerea Ibartzabal. Guiados por: Amaia Agirre

1 de julio, viernes

-Día de las cuadrillas-

10:00 Taller de circo para niños y niñas

11:30 Fiesta de agua en Lamiategi

13:00 Acto por la ikurriña

14:30 Comida de cuadrillas

17:00 Poneys y "zezen txikiak"

18:30 Concierto de DISTOPIA en la plaza

22:00 Toro de fuego

22:30 Concierto; GABEZIN

2 de julio, sábado

-Día de las/os niñas/os-

10:00 Concursos y juegos para los/as niños/as
Dibujos, Cross, cuentos, ajedrez...

12:00-14:00 Hinchables

Comida para niños y actuación musical

15:00-17:00 Hinchables

18:00 Concurso de tortillas

18:30 Sagardo Dastaketa

ELECTROTXARANGA

22:00 Conciertos: ANKER y GOZATEGI

3 de julio, domingo

-Día de disfraces-

11:00 Bertsolaris de Asteasu en la plaza

12:00 Espectáculo TIO TERONEN SEMEAK en la plaza

17:00 Partidos de pelota:

Larrarte-Erasun/Garai-Agirre

Labaka-Urruzola/Urbieta-Aizpuru

17:30 Concierto de chistu en la plaza

19:00 Romería: ORKESTRINA BAND JAZPANA

21:00 Subida de la bruja





AURREKONTUA

Kontzeptua

Azpiegiturak (karpa, soinu ekipoa, argindarra...)

Larunbat gaueko autobus zerbitzua indartzea

Musika taldeak

Kultur ikuskizunak (antzerkiak, bertso saioak...)

Jan edanak (kuadrilla bazkaria,
hamaiketakoak, jubilatu bazkaria...)

Haurren ekitaldiak

Kirol ikuskizunak

Beste gastuak

GUZTIRA

Kopurua €

9.977,00

660,00

19.209,50

9.246,43

8.200,00

3.014,00

4.720,00

5.500,00

60.526,93



ESKER ONAK

Asteasuko Udalaren aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu San Pedro jaiak antolatzea posible egin duzuen guztioi.

- Jai batzordea
- Haurren asanblada
- Gaztelekuko gazte eta hezitzaileak
- Kuadrilla eguneko laguntzaile eta antolatzaileak
- Pandero eta trikiti eskolako kideak
- Herriko koroa, txistulariak eta trikitilariak
- Lagunarteko herrikirolen antolatzaile eta parte hartzaileak
- Herriko elektrotxaranga
- Guraso Elkartea
- Txozna Herrikoiaeren antolatzaile eta laguntzaileak
- Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatzen aritu zareten lagunak
- Jaietako programan iragarkia jarri duzuen enpresa, taberna eta dendariak
- Zizurkilgo buruhaundi eta erraldoiak
- Festa honetan modu batean edo bestean, laguntzen ari zareten guzti guztiak

*Jaien programak ilusioa
dakar buzaira heltzean
baina festarik ez litzateke
batzuk lan egin ezean.
Festa Batzorde, Guraso Elkartea,
txoznan zein udaletxean
aritutako guztiok jaso
gure eskerrak etxean
aurrez egindako lan ordu asko
baitaude festen atzean*



ASTEASUKO SANPEDROAK 2022



TRAMETAL

Protegemos superficies para su permanencia

Pol. Industrial Asteasu, Zona F – Pab. 81-82, · **Asteasu**
trametal@trametal.es · Tel. 943 69 30 59

www.trametal.es



asmek

desde 1986

Industrialdea B Gunea nº38
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel. +34 **943 692 230** · Fax +34 **943 690 899**
asmek@asmek.es · www.asmek.es




Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

609 434 910 · Tel./Fax: 943 693 212
Apartado 52 · Villabona
www.transporteslakunza.com

ERAKUNTZAK · ASFALTOAK
BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.

Bº Elizmendi, 44
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)
Tel. 943 690 178

bixenteotegi@bixenteotegi.com



Mecanizados de precisión sobre plano

OMICRON

*Jai Zoriontsuak!
¡Felices fiestas!*

ARIZNABARRETA S.A.

Asteasuko Industrialdea, 40 (B gunea) · Asteasu


☎ 943 691 662 · Fax: 943 691 024

www.ariznabarreta.com

Jose M^a Beldarrain

Harategia - Urdaitegia

- Labeldun haragia
- Etxeko oilasko eta jakiak



*Festa onenak opa
dizkizue herritar guztiei !!!*

☎ 943 691 918 · Kale Nagusia, 19 · Asteasu



☎ 943 696 405
Nagusia, 3 · Asteasu



transportes
segurola

servicio de almacenaje

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Asteasuko Ind. E-gunea, 75 · Asteasu 20159 Gipuzkoa

☎ 943 69 03 00 / 943 69 09 62 · Fax 943 69 01 96

Polifluor

ERABILPEN TEKNIKORAKO PLASTIKO BEREZIAK

Asteasu Ind. - G gunea, 99/100 · 20159 Asteasu

☎ 943 694 119 · Fax 943 690 362

ventas@polifluor.com

www.polifluor.com



Ondo pasa festak!!

**PIEZEN
MEKANIZATZEA
ETA MUNTAIA**

**MECANIZACIÓN
DE PIEZAS
Y MONTAJE**

ASTEASU TEL. 943 69 69 14



MECANOCAUCHO

KAUTXOAREN APLIKAZIO MEKANIKOAK

*30 urte baino gehiago
bibrazioaren aurkako sistemak egiten*

© 943 696 102 · Fax: 943 696 219

www.amcsa.es



Pol. Ind. Pete Sagasti, 91 - Bajo
ASTEASU

☎ 943 696 863

☎ 943 692 639

@ comercial@aterpea-mantenimientos.com

www.aterpea-mantenimientos.com



Zorionak Asteasu ta ondo pasa festak!

☎ 943 691 104

Kale Berria, 10 · Asteasu



SODESA

CLEAR AND RECYCLED PACKAGING

Trabajando cada día por un envasado
verdaderamente sostenible

Envasado en Atmósfera Modificada - Envasado para farma
Envasado hortofrutícola - Envases para huevos

Asteasuko Industrialdea , A-GUNEA 10 (ASTEASU)

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!!!



mekanizatuak

PIEZEN MEKANIZATZEA ETA MUNTAIA

ASTEASUKO INDUSTRIALDEA D GUNEA 62 ZBK.

TEL: 943 69 63 67



AXUN

ILEAPAINDEGIA-ESTETIKA

*Ondo pasa
San Pedro jaiak*

Kale Berria, 7A - ASTEASU

☎ 943 694 403



ROBERTO AGUIAR

Pol. Ind. Asteasu, Zona A, N°5 • ASTEASU

© 675 708 954

luisrobertoag01112@gmail.com

Asteasuko Industrialdea - A Gunea 13. pabiloia

20159 Asteasu (Gipuzkoa)

© 943 69 25 45 • Fax: 943 69 12 08

maimen@euskalnet.net

**MECANIZADOS DE MANDINADRORA
Y FRESADO CNC SOBRE PLANO O CROQUIS**

**Javier
Iraola**

HARATEGIA - URDAITEGIA

- Berezitasunak: Bertako haragia eta etxean egindako txerrikiak.
- Etxean prestatutako janariak.
- Enkarguz: Arkumea, oilaskoa eta txerrikume errea.
- Etxerainoko banaketa zerbitzua.

**Ondo pasa
herriko festak!!**

Kale berria, 5. ASTEASU

Tel.: 943 691 932 - 649 477 210

Aneli

ILEAPAINDEGIA ETA ESTETIKA

Kale Nagusia 15 - ASTEASU 618 210 106

Desde el año 1982

skinter

ENVASADOS EN SKIN, BLISTER
Y MOLDEO POR VACÍO

Asteasuko industrialdea, 46-47
20159 ASTEASU | www.skintersl.com

ataria

www.ataria.eus • 107.6 fm



OHARRAK

- Jai alai eta umoretsuak desio ditugu.
 - Parte hartu, ondo pasa, eta ingurua errespetatu.
 - Zaindu auzotarrak, neurtu bolumena bereziki ordu txikitan.
 - Kontsumoekin arduratsu izan.
- Alkoholak edo kontsumoek ez dute justifikatzen ezer!
- Larunbat gauean, goizalderarteko autobus zerbitzua jarri dugu Tolosara, autoa erabili beharrik ez izateko.
 - Jokatu arduraz, merezi du!
 - Norbaiti zerbait gertatuz gero, LAGUNDU iezaiozu.
 - Festetan ere birziklatu, berrerabili eta zaborra gutxitu.
 - Ez oztopatu garbiketako lanak; kontuan izan zenbaitek lan egingo dutela gainontzekook festetan ondo pasa dezagun.
 - Komun publikoak erabili.
 - Asteasuk EZETZ! dio indarkeria matxistaren aurrean.

- Desamos unas fiestas donde prime la alegría y la diversión.
 - Participa, disfruta, y respeta a los demás
 - Cuida a los vecinos/as, regula el volumen, sobre todo de noche.
 - Sé responsable con tus consumos.
- Ni el alcohol ni cualquier otro consumo justifica nada!
- La noche del sábado, hemos organizado un servicio de autobús adicional hasta Tolosa, hasta la madrugada, para no tener que utilizar el coche. Actúa responsable, te lo mereces!
 - Ayuda a quien lo necesite.
 - En fiestas, recicla, reutiliza y reduce la basura.
 - No obstaculices el trabajo del personal de limpieza. Algunos deben trabajar para que otros pasemos buenas fiestas.
 - Utiliza los baños públicos.
 - Asteasu dice ¡NO! ante la violencia machista.